



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2025ko otsailaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita bosteko otsailaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, , DACHAGUER Peio, HEGUY Antton, . IRIART Jean Claude

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

Afitxatze eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

### **3. ERABAKIA: ARROSATEGIA ETXEAREN ERABERRITZEKO FEDER DIRULAGUNTZA BATEN ESKAERA** (7.10 nomenklatura)

Auzapezak herri biltzarkideei oroitarazi die Arrosategia etxearen xedea aldatzeko eta eskolekin loturan lirakeen eremu publikoak eta pilota leku baten sortzeko proiektua.

Zehaztu du Arrosategia etxearen eraberritze proiektuarentzako finantzamenduak eta eskolekin loturan diren eremu publikoen eta frontoiaren sortzeko finantzamenduak desberdinak izanen direla.

Biltzarrari proposatu dio Europako FEDER 2021-2027 «Bulegoetarako eraikin publikoen energia-eraberritze orokorra, eraginkortasuna eta karbono isurpen murrizketak » dirulaguntza eskatzea Arrosategia etxearen energia-eraberritze proiektuarentzako.

Auzapezak azaldu du proiektuaren estimazioa 1 341 456.50 euro ZK-koa (zergaz kanpo) dela. Honako finantzazio aurreikuspen plana proposatu du:

GASTUEN IZAERA	ZENBATEKOA ZK	SARTZEAK	ZENBATEKOA	%
Ikerketak	34 955.00 €	FEDER 2021-2027	500 000.00 €	%40

Obra kudeantza	120 348.50 €	2025eko Funts berdeak	380 820.00 €	%30
		Euskal Elkargoa – Eskualde eremuko eskuhartze funtsa	105 645.92 €	%8
OROTARA, IKERKETA/ZERBITZU-SARIEN ATALA	155 303.50 €	OROTARA, LAGUNTZA PUBLIKOEN ATALA	986 465.92 €	%79%
Arrosategia etxearen energia-eraberritze lanak	976 469.00 €	Mailegua	200 000.00 €	%16%
Gastu erantsiak	117 153.00 €	Funts propioak	62 459.58 €	%5
OROTARA, LANEN ATALA	1 093 622.00 €	HERRIKO ETXEAREN PARTEA	262 459.58 €	%21
OROTARA	1 248 925.50 €	OROTARA	1 248 925.50 €	%100

Auzapezak proposatu du FEDER 2021-2027 «Bulegoetarako eraikin publikoen energia-eraberritze orokorra, eraginkortasuna eta karbono isurpen murrizketak» deialditik, Euskal Hirigune Elkargoko funts berdeetatik eta beste erakunde diruztatzaillei ahal bezainbat dirulaguntza eskatzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- ONARTU DU, aurkeztu zaion Arrosategia etxearen eraberritze proiektua,
- ONARTU DU, 1 248 925.50 euroko ZK lanen zenbateko aurreikusia,
- ONARTU DU, aurkeztu den finantzamendu plana,
- FEDER 2021-2027 «Bulegoetarako eraikin publikoen energia-eraberritze orokorra, eraginkortasuna eta karbono isurpen murrizketak» deialditik, Euskal Hirigune Elkargoko funts berdeetatik eta beste erakunde diruztatzaillei ahal bezainbat dirulaguntza ESKATUKO DU.
- AURREIKUSIKO DITU, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,
- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balizko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2025ko otsailaren 4an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2025/02/10an publikatu edo notifikatu ondoan, Eta  
Prefeturan pausatu ondoan 2025/02/10an.